

Ereñotzuko Auzo Udala:

guztientzako bizitza kalitatearen bila

■ Ereñotzuko Auzo Batzarra

Ereñotzu toki ederra da bizitzeko. Bertan jaio edo bizi den edonork esango du hori. Leku lasaia, naturaz inguratua, Urumea erreka gozatzeko leku zoragarriekin, Aiako parke naturalerako sarrerarekin, Akola edo Aparraingo parkeekin, Oinddi, Urdaburu, Adarra,... mendiez inguratua, ondare aberatsarekin (ondare megalitikoak, olak, Latxeko fabrika, baserriak,...), Hernani eta Donostiatik *gertu*, festa eta usadio indartsuekin, Txirrita eskolarekin,... *bizitza kalitate* handiko gunea da Ereñotzu, baina...



Arg: I. Sanz-Azkue

Gero eta *baina* gehiago.

Ereñotzuk *baina* asko ditu ordea, eta tamalez azken urteetan areagotzen ari dira. Gero eta zerbitzu gutxiago daude bertan; garai batean izan ziren denda edo tabernak ixten joan dira; azken bi hamarkadetan etxebizitza berririk ez zela eta, bertako gazte generazio bat baino gehiagok auzotik joan behar izan du (zorionez azken urteetan tendentzi honi buelta ematea lortu da); biztanleria %17 jaitsi da; 65 urtetik gorakoen kopurua handiagoa da 19 urtetik beherakoena baino; garraio publikoa oso murrizta da (ondorioz Hernani eta Donostia *urrun* daude auzotar askorentzat); haur eta gazteentzat ez dago ekipamendurik eta aisialdirako aukerarik; elkarguneak falta dira; gaur egungo gizartean ezinbesteko bihurtu zaizkigun hainbat zerbitzu falta dira edo arazo dira auzoan, internet, telefono mugikorrekobertura, telebista kate digitalak,... Ondorioz, *bizitza kalitate* txikiko gunea da Ereñotzu...

Baina zer da *bizitza kalitatea*?

Pertsona bezainbeste definizio aterako zaizkigu seguruenik galdera hau egitean. Auzo Udalaren kontu honekin duela 5 urte hasi ginenean, Hernaniko Udalak SIADECoren bidez Udal teknikarien artean inkesta bat egin zuen. Bertan, Ereñotzuren ezaugarri ezberdinak baloratuta, baloraziorik bajeuna *bizitza kalitateak* jaso zuen. Honek zer pentsatua eman zigun. Ereñotzuzun *bizitza kalitate* bajea? Segun eta nondik begiratzen den eta segun eta bakoitzak zer ulertzen duen bizi kalitateaz. Lasaitasuna, naturarekin kontaktua, nortasun propioko gunea,... bilatzen dituenak *bizitza kalitate* handia topatuko du Ereñotzun. Zerbitzuen falta, urruntasuna,... nabaritzen dituenak *bizitza kalitate* bajea topatuko du Ereñotzun.

Auzo Udalaren helburua ahal den neurrian ikuspegi guztiak hurbiltzea eta guztiontzat Ereñotzun ahalik eta *bizitza kalitate* hoberena sortzea da. Daukaguna zaindu, mimatu eta sustatu, eta falta duguna eraiki, eskuratu edo lortu. Helburu horrekin eratu da Ereñotzuko Auzo Udala, auzoaren nortasunari eutsi eta bertako biztanleen beharrei erantzuteko asmoarekin.

Sei urteko lanaren ondorio.

2005eko urte hasieran jaso genuen Hernaniko Udaletik Ereñotzun tokiko entitate txiki bat (Auzo Udala) sortzeko aukera aztertzeko proposamena. Artean ez genekien zer zen, Gipuzkoan ez baitzegoen eredurik. Proposamena jaso, informazioa bildu eta berehala, auzo batzar bat deitu genuen eta bertara hurbildu ziren 60 auzotarretik gorak, zalantza askorik gabe, apustuarekin aurrera egitea erabaki genuen. Geroztik prozesua luze joan den arren, urtero egin ditugun batzarretan, hasierako ilusio berbera mantendu da.

Sei urte hauetan, gaur egun den Auzo Udala izango zena diseinatzen aritu gara elkarlanean Ereñotzuko Olak Auzo Elkartea eta Hernaniko Udala. SIADECoren bidez egindako bi lan izan ziren abiapuntu: Hernaniko Udaleko teknikari eta politikarien iritzi bilketa, batetik, eta Ereñotzuzun Auzo Udala eratzea justifikatzen zuen memoria (2007-07-11), bestetik. Aipagarria da prozesuan zehar eman diren pauso guztiak Hernaniko Udaleko udal talde guztien aho bateko onarpenarekin egin direla. Hiru izan dira Hernaniko Udalak gai honen inguruan egindako ple-noak eta hartutako erabaki esanguratsuak:

- **2006-09-15. Hernaniko Udaleko plenoak prozesua ofizialki martxan jartzea onartu zuen** (aho batez).
- **2009-06-18. Hernaniko Udaleko Plenoak, Hernaniko Udala eta Ereñotzuko Olak Auzo Elkartearen arteko negoziaketaren ondoren eratutako behin betiko txostena onartu eta jendaurrean jartzea** erabaki zuen (aho batez).
- **2010-01-28. Hernaniko Udaleko plenoak behin betiko onarpena eman zion Ereñotzuko Auzo Udala sortzeari** (aho batez).

Erabaki guztiak aho batez hartzea, baldintza zehatz batek ekarri du: **Ereñotzu auzoari, auzoaren nortasunari eutsi eta bertako biztanleen beharrei bertatik erantzuteko ahalmena emango dio Ereñotzuko tokiko entitate txikiak eta honek ez du inondik inora ere Hernani udalerraren interes orokorrentzako kalterik ekarriko, ez ikuspegi sozialetik eta ezta ikuspegi ekonomikotik ere.** Landu eta lortutako akordioan hau bermatzen da.



EREÑOTZUKO AUZO UDALA SORTZEAREN ALDE AL ZAUDE?

GALDEKETA

Noiz eta non

Martxoaren **28**an, Ereñotzuko
Kultur Etxean, **10:00**etatik **18:00**ak
bitartean.

Baldintzak

2010eko martxoaren 28an
16 urte gutxienez beteak izatea
eta Ereñotzuko erroldan 2010eko
martxoaren 1a baino lehen inskribatua
egotea.

**DENON PARTE HARTZEA
OSO GARRANTZITSUA
IZANGO DA**

EMAN ZURE IRITZIA!

Auzotarren erabateko babesa.

Ereñotzuko auzotarrek ere izan dituzte zenbait aukera Auzo Udalaren inguruko iritziak emateko. Gai honen inguruan, ahalik eta informazio zuzenena ematearren, urtero auzo batzar pare bat egin dira eta bertan, aldioro Auzo Udalaren aldeko jarrera azaldu dute auzotarrek. Auzoaren garapenerako behar beharrezko tresna bihurtu da Auzo Udala. Ereñotzuarrak gure emozioak oso nabarian uzteko zale ez garenez, 2010eko martxoaren 28an ere zalaparta handiegirik ez genuen atera, baina egun handia izan zen auzoarentzat.

Egun horretan ospatu zen Auzo Udalaren inguruko galdeketa eta emaitzak ez zuen zalantzarik utzi.

Galdera bakarra: Auzo Udala sortzearen alde al zaude? Hauek izan ziren emaitzak:

Hautesleak	Parte-hartzea	BAI	EZ
490	290 (% 56)	277 (% 96)	13 (% 4)

Gipuzkoako lehenengo Auzo Udala.

Ereñotzu auzoak eta Hernaniko Udalak egin genituen gure lanak, baina azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiak zuen.

Ordura arte Gipuzkoan ez zen beste tokiko entitate txikirik eta prozesu honetan zehar, karga hori eraman behar izan dugu. Inolako eredurik gabe, pixkanaka eraiki eta adostu behar izan dugu Auzo Udalaren proiektua.

Legearen arabera, Auzo Udalek, udal batek izan ditzakeen eskumen berak izan ditzakete, zerga bilketa, udaltzaingoa eta urbanismoa izan ezik. Bestetik, bi baldintza bete behar ditu: herri-gunetik distantzia batera egotea eta 500 biztanletik gora izatea.

Bi baldintzak betetzen ditu Auzo Udalak hartzen duen guneak (Lastaolatik Pagoagara bitartean). Eskumenei dagokionez, guztien intereserako neurriko zapata diseinatu dugu Hernaniko Udalaren eta Ereñotzuko Olak Auzo Elkartearen artean.

Baina esan bezala, azken hitza Gipuzkoako Foru Aldundiak zuen eta honen aurrean ere zenbait kontu argitu eta defendatu behar izan ditugu:

- Hernaniko Udalaren interesa (3 udal plenoak).
- Ereñotzuko auzotarren interesa (galdetegia, batzarretako aktak,...).
- Lurraldearen mugaketa.
- Auzoaren berezko nortasuna: Txirrita eskola, San Antonio jaiak, talde eta elkarte ezberdinen funtzionamendua (Auzo Elkartea, Ur Mia Elkartea,...), San Antonio parrokia, auzoaren ondarea, dokumentu historikoak,...

Hori guztia bildu eta aurkeztu ondoren, berriz ere zalaparta handiegirik gabe ospatu (ez) genuen bigarren egun historikoa iritsi zen: 2010eko urriaren 7a, non Gipuzkoako Foru Aldundiak, Foru Dekretu bidez, onartu zuen Ereñotzuko Auzo Udalaren sorrera.

Hona hemen Foru Dekretuaren puntu nabarmenenak:

1. artikulua. Eratzea.

Ereñotzuko toki entitate txikia eratzen da Hernaniko Udalerrian.

2. artikulua. Lurralde mugaketa.

Ereñotzuko toki entitate txikia Hernaniko hegoaldean dago eta Astigarraga, Donostia, Errenteria, Urnieta eta Elduain udalerriak ditu mugakide, baita Nafarroako Arano herria ere (lurralde mugaketa eta mugak foru dekretu honen eranskinean jasotzen dira).

3. artikulua. Gobernu organoak.

- Auzo alkatea.
- Auzo batzarra: auzo alkatea gehi 4 juntakide.

4. artikulua. Eskumen propioak.

Ereñotzuko toki entitate txikiak ondorengo eskumen propioak izango ditu:

- a. Bere ondarea administratzea eta zaintzea.
- b. Mendi eta landa garapena: etxe eta baserrietara iristeko landa-bideen eta mendiko herri-bideen mantentze-lanak.
- c. Herriaren mantentze lanak: leku publikoen eta urbanizazioen mantentze lanak, lorezaintza lanak.
- d. Toki entitate txikiko eraikinen mantentze lanak, garbiketa eta zaintza.

5. artikulua. Auzo udalaren ondarea.

Ereñotzuko toki entitate txikiaren ondarea Hernaniko Udal batzarrek 2010eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran onartutako izango da, foru dekretu honen eranskinean jasotzen dena.

6. artikulua. Aurrekontu esleipenak.

Ereñotzuko toki entitate txikiak Hernaniko Udaletik jasoko ditu 2010eko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuran Udal batzarrek hartutako akordioan aurreikusitako aurrekontu esleipenak (Hernaniko Udalako aurrekontuei aplikatuta formula baten bidez, SIADECOK garatutako formula, kalkulatzeko da urtero Auzo Udalaren aurrekontua).

Auzoaren aukeraketa eta borondatea.

Behin Foru dekretua argitaratuta Ereñotzuko Auzo Udala sortu zen. Hasiera batean honen kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako junta gestora batek egin zuen, 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeak bitartean.

Hauteskunde hauetarako Ereñotzuko Olak Auzo Elkartek, Auzo Udalaren kudeaketaz arduratuko zen hautagaitza aurkeztea erabaki zuen. Hautagaitza aukeratzea, era berezian egin zen: 16 urtetik gorako auzotar guztiek, beraiek nahi zituzten 5 auzotarren izenak proposatu ahal izan zituzten.

Hemen ere auzotarren parte-hartzea handia izan zen eta ia 300 auzotar hurbildu ziren 2011ko otsailaren 6rako egindako deialdira. Proposamen guztiak jaso ondoren, boto gehien zituzten 12en artetik, legez Auzo Udal gobernua osatu behar zuten 5 kideak beraien artean adostasunez aukeratzea zen helburua. 12 kide hauek, guztien artean lantaldea osatzea erabaki zuten.

Lantalde hori ari da lanean Auzo Udalean, hasieran Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuta Junta Gestora moduan eta ondoren, maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren, auzotarrek hauteskundeetan aukeratuta.

Auzoaren biziberritzea helburu.

Lantalde hau helburu bakarrarekin ari da lanean: *Ereñotzu biziberritzea*. Biziberritze honek, *bitziza kalitatea* bermatuko baitu Ereñotzun, edozein ikuspegitik begiratuta ere.

Helburu horretara iristeko, epe labur-ertainerako eginkizunak zehaztu dira zenbait arlotan:

- **Zerbitzu eta azpiegituratan**, auzoaren eskari historikoa den frontoiaren bideragarritasunerako lanean hasi gara eta badirudi ametsa ez dagoela hain urrun; 2010eko urrian itxi zen eta Ereñotzuko auzo gunean zegoen azken taberna zena irekitzeko ahaleginetan ere ari gara. Auzoan elkarguneen behar handia dago eta frontoia eta taberna dira behar horri erantzuteko lehentasunak. Beste zenbait behar ere badira, zenbait gunek zaharkiturik edo egoera txarrean ere badira, eta hauei pixkanaka heldu beharko diegu.

- **Gizarte zerbitzuen** arloak ere berebiziko garrantzia du gurea bezalako auzoan. Gero eta auzo "zaharragoa" da gurea eta arlo sozialeko beharrak areagotu egin dira. Ongintza Patronatuarekin sinatu dugun hitzarmenaren bidez gizarte laguntzailea ari da lanean asteazken behin Ereñotzun eta osasun zerbitzu gehiago hurbiltzeko ahaleginetan ari gara.

Bestalde, haur eta gazteentzat aukera eta eskaintzarik ere apenas dago eta honi aurre egin behar diogu. Uztailaren zehar, 2tik 12 urtera bitarteko 32 haurrek hartu dute aurten parte Olak Auzo Elkartearen bidez antolatutako udalekueetan, asteazken 3 egunetan. Guraso talde baten ekimenaz, ludoteka zerbitzua ere martxan da, besteak beste.

Auzoko haur eta gazteen arteko harremanak, ezinbestekoak izango dira auzoaren etorkizunerako. Beraien arteko eta auzoartekiko loturak, orain sustatzen badira, etorkizunerako pausu handia emango da.

- **Kulturari** dagokionez, aurten ere San Antonio festa arrakastatsuak ospatu dira eta *Udazken kulturala* ere ekitaldi bete-betea izan da; Santa Ageda eta Gabonetako Errondak, kantu emanaldia, Aranorako igoera,... auzoaren nortasuna indartzeko eta auzoa bizirik mantentzeko ezinbesteko zitak dira. Ohiko zita hauek gain, lehenengoz Ereñotzu-Oindi-Ereñotzu mendi lasterketa antolatu da, auzo txikia izanik ere, auzotarren inplikazioarekin antolaketa gaitasun handia duela erakutsiz. Kultur eskaintza zabaltzeko asmoz, zenbait ikastaro eta ekintza ezberdin jarri eta jarriko dira martxan: euskal dantzak, argazkilaritza, ipuin kontalari ikastaroa, yoga, aerobika, gimnasia,...
- **Zerbitzu administratiboei** dagokionez ere, hauek auzora ekartzea lortu dugu eta jadanik auzotarrek, auzoan bertan lortu ditzakete, errolda agiriak, alta eta bajak tramitatu, eskariak egin eta abar. Auzo Udala astelehenetik ostiralera egunero dago zabalik eta egunero eskaintzen zaie harre-ra eta arreta auzotarrei.



Arg: Jesus Azkue

Apaiz etxea - Auzo Etxea: erreferentzia gune garrantzitsua.

Auzo Udala 2011n sortu eta eratu bada ere, hura sortzeko bidean zenbait pausu garrantzitsu eman ditugu 6 urte hauetan. Garrantzitsuenetakoa, Apaiz etxea Auzo Etxe bihurtzearena izan da.

Urte askotan hutsik egon den Apaiz Etxea, Hernaniko Udala, Ereñotzuko Olak Auzo Elkartea eta Behemendiren ekimenaren ondorioz, Gotzaitegiak 30 urterako Hernaniko Udalari ematea lortu zen 2009an eta honek Auzo Udalari egin zion lagapena auzoaren erabilerarako.

Bere kokapenagatik, Ereñotzuko auzo gunean eliza, eskola, taberna eta plaza nagusiaren ondoan, auzo osoarentzako erreferentzia da etxe hau.

Kokapen eta erreferentzialtasun hau aprobetxatuta, etxea berritu eta bigarren eta hirugarren pisuan kokatu ahal izan ditugu Auzo Udaleko bulegoak, harrera guneak, kontsultaguneak eta abar. Lehen pisuan berriz, erabilera anitzetako gela bat dugu eta bertan antolatzen ahal ditugu zenbait ekitaldi kultural, ikastaro, bilera eta abar. Hirugarren solairuan, liburutegia eta Kz gunea kokatzeko lekua dugu.

Era honetan Apaiz Etxe zena, Auzo Etxe bilakatu da, auzoaren biziberritzean garrantzi handia izango duen gunea.

Auzolanaren kultura.

Guzti hau aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko tresna izango da Auzo Udala, auzoko beharrak antzeman eta gertuko kudeaketa bat egin ahal izango dugulako. Hala ere, jabetzen gera, Auzo Udalak ere baliabide mugatuak dituela, eta ezinbestekoa izango dela, *auzolana*. Auzoan oso barneratua dugun kontzeptu bat da hau eta ahalik eta kudeaketa eraginkorrena egin ahal izateko behar beharrezko izango duguna. Lehen ere auzolanean atera izan ditugu Ereñotzun aurrera zenbait proiektu eta eraikin (eliza, apaiz etxea, bolatokia, Ugaldetxoko frontoia berritzea,...). Ziur gaude beti bezala auzoak erantzungo duela, horregatik baitu hain izaera berezia Ereñotzuko. Behar denean, bat egin eta aurrera egiteko ahalmena izan duelako.